

XEDAPEN OROKORRAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4607

AGINDUA, 2025eko urriaren 13koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baita «Bizkaiko txakolina / Txakoli de Bizkaia / Chacolí de Bizkaia» jatorri-deituraren Kontseilu Arautzailearen Erregelamendua.

2008ko uztailaren 29an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako sailburuaren 2008ko ekainaren 17ko Agindua, zeinaren bidez «Bizkaiko Txakolina / Txakoli de Bizkaia / Chacolí de Bizkaia» jatorri-izendapenaren Erregelamendua aldatzen baita eta haren testuategina onartzen baita. Aipatutako aldizkari ofizialean, 2008ko ekainaren 17ko Aginduaren bi huts-zuzenketa argitaratu ziren, bata 2008ko abuztuaren 29ko zenbakian eta bestea azaroaren 10ekoan. Geroago, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko martxoaren 7ko Aginduak aldatu zuen «Bizkaiko Txakolina / Txakoli de Bizkaia / Chacolí de Bizkaia» jatorri-izendapenaren Erregelamendua (2012ko uztailaren 17ko EHAA, 139. zk.). Agindu hori 2016ko urriaren 11ko EHAAz zuzendu zen (193. zk.).

Orain arte, erregelamenduak, Kontseilu Arautzailearen funtzionamendua jatorri-deituraren kudeaketa-organo gisa arautzeaz gain, izaera teknikoko gaiak ere jasotzen zituen, baina, hemen-dik aurrera, produktuaren baldintza-agirian soilik jasoko dira haiek. Horregatik, eta jatorri-deituraren Kontseilu Arautzaileak baimena eskatu ondoren, erregelamendu berria onartzen da, zeinak produktuari buruzko gaiak lantzen baititu, edukia berrantolatzen baitu, eta Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legea egokitze behar diren manuak jasotzen baititu.

Arau hau egiterakoan, kontuan hartu dira Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 4. artikuluan xedatutako arauen kalitatearen printzipioak.

Hori guztia dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» Jatorri Deitura Babestuaren Kontseilu Arautzailearen barne-erregelamendua onartzea. Xedapen honen eranskinan dago horren testua.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indargabetu egiten da Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako sailburuaren 2008ko ekainaren 17ko Agindua, «Bizkaiko Txakolina / Txakoli de Bizkaia / Chacolí de Bizkaia» Jatorrizko Deituraren Erregelamendua aldatzen eta horren testuategina onesten duena.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA.— Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 13a.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
AMAYA BARREDO MARTÍN.

ERANSKINA

«BIZKAIKO TXAKOLINA/TXAKOLI DE BIZKAIA/CHACOLÍ DE BIZKAIA»
JATORRI-DEITURAREN KONTSEILU ARAUTZAILEAREN ERREGELAMENDUA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Izaera, araubide juridikoa eta ordezkaritza.

1.– «Bizkaiko Txakolina / Txakoli de Bizkaia / Chacolí de Bizkaia» Jatorri Deitura Babestuaren Kontseilu Arautzailea zuzenbide publikoko korporazio gisa eratuko da, eta nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa izango ditu bere helburu publiko eta pribatuak betetzeko.

2.– Halaber, jatorri-deitura babestu hori kudeatuko duen entitatea izango da, eta kontrol- eta ziurtapen-jarduerak egin ahal izango ditu, Mahastizaintza eta Ardogintza Antolatzekeo maiatzaren 7ko 5/2004 Legearen 35. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

3.– Oro har, zuzenbide pribatuak arautuko du; bereziki, kontratazioa eta ondare-araubidea. Salbuetsita daude dagokion araubide juridikoaren mende geratzen diren gai zibilak eta penalak, bai eta langileekiko harremanak ere, lan-legeriaren arabera arautuko baitira.

Eraketari, antolaketari eta hauteskunderen prozedurari dagokienez, zuzenbide publikoak arautuko du, eta, era berean, administrazio-zuzenbidearen mende geratuko da funtzio publikoak betetzea dakarren jarduketa orotan. Egintza horien aurka errekurtsoa jarri ahal izango da Eusko Jaurlaritzan elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen sailaren aurrean, eta errekurtso horrek administrazio-bidea azkenduko du.

Nolanahi ere, horien eraketa, egitura eta funtzionamendua jatorri-deitura babestuan integritutako interes ekonomiko eta sektorialen printzipio demokratikoen eta ordezkagarritasunaren printzipioen arabera arautuko dira, gutxiengoak bereziki kontuan hartuta.

4.– Jatorri Deitura Babestuaren Kontseilu Arautzailea ordezkatzeko kontseiluko presidenteari dagokio.

2. artikulua.– Helbidea.

Egoitza soziala Leioa udalerrian egongo da, Mendibile auzoko 42. zenbakian (Bizkaia).

3. artikulua.– Eskumen-esparrua.

Kontseilu Arautzailearen eskumen-eremua, zuzenbide pribatuari lotutako barne-erabilerako arauak aplikatzean, eta eman dakizkiokeen funtzio publikoei kalterik egin gabe, hauek zehaztuko dute:

a) Lurraldeari dagokionez: jatorri-deitura babestuaren eremu geografikoa.

b) Produktuen arabera: jatorri-deitura babestuak babestutakoak, edozein fasetan (ekoizpena, elaborazioa, zahartzea, zirkulazioa eta merkaturatzea); eta jatorri-deitura babestuak babesten ez dituenak, baldintza-agiria egiaztatzekeo soilik, eta erregelamendu honetan zehaztutako erregistroetan inskribatutako upeltegien barruan dauden bitartean.

c) Pertsona fisiko eta juridikoak: erregistro horietan inskribatutakoak.

Entitate kudeatzaileak era guztietako elkarte, fundazio, sozietate zibil edo merkataritza-sozietate, zuzenbide publikoko korporazio, kontseilu arautzaile edo bestelako pertsona juridikoetan parte hartu, eratu edo horiekin harremanak izan ahal izango ditu, eta, hala badagokio, egoki irizitako lankidetzak-akordioak ezarriko ditu.

II. KAPITULUA

KONTSEILU ARAUTZAILEA. XEDEA, HELBURUAK, FUNTZIOAK ETA BETEBEHARRAK

4. artikulua.– Xedea.

1.– «Bizkaiko Txakolina / Txakoli de Bizkaia / Chacolí de Bizkaia Jatorri Deitura Babestuaren Kontseilu Arautzailea» izeneko entitate kudeatzailearen xedea da jatorri-deitura hori kudeatzea, bat etorritik Mahastizaintza eta Ardogintza Antolatzeak maiatzaren 7ko 5/2004 Legean xedatutakoarekin.

2.– Era berean, Administrazioaren tutoretzapean egongo da, eta, beraz, administrazio-zuzenbideko arauen mende, honako jarduketa hauetan, ahal publikoak egikaritzen direlako:

- a) Erregelamendua onartzea.
- b) Jatorri-deitura babestuaren erregistroak kudeatzea.
- c) Jatorri-deitura babestuari atxikitako produktuaren edo operadorearen ziurtagiriak ematea, interesdunak hala eskatuta.
- d) Babestutako produktuetan erabil daitezkeen etiketa komertzialek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak ezartzea, jatorri-deitura babestuari eragiten dioten alderdietan.
- e) Kanpaina bakoitzerako, agirian ezarritako mugen barruan, ekoizpen- edo eraldaketa-prozesuetan eragina izan dezaketen urteko koiunturako alderdiak ezartzea.

5. artikulua.– Helburuak.

Kontseilu Arautzailearen helburu nagusia jatorri-deitura babestua bere gobernu-organoen bidez kudeatzea eta defendatzea da.

Horrez gain, jatorri-deitura babestua ordezkatzeko eta sustatzea, eta babestutako ardoak defendatzea, bermatzea, horien merkatuak ikertu eta garatzea, bai eta jardura horiekin lotutako zerbitzuak ematea ere.

Era berean, jatorri-deitura babestuak babesten ez dituen mahats, muztio eta ardoen mugimendua zaintzea agintzen da, baldin eta ekoizpen-eremuan elaboratzen, ontziratzen, merkaturatzen edo garraiatzen badira. Zerbitzu horren gorabeheren berri emango zaio Eusko Jaurlaritzan elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen sailari, eta sortzen diren akten kopiak igorriko zaizkio, hargatik eragotzi gabe zaintza horretan eskumena duten organismoek esku hartzea.

6. artikulua.– Funtzioak.

1.– Funtzio hauek dagozkio Kontseilu Arautzaileari, besteak beste:

- a) Administrazio publikoekiko kontsulta- eta lankidetzak-entitate gisa jardutea jatorri-deitura babestuaren eremuan.
- b) Jatorri-deitura babestuaren izen ona eta sustapena zaintzea, eta, hala badagokio, erabilera oker oro salatzea eskumena duten administrazio- eta jurisdikzio-organoei.

- c) Aplikazio-arauek eskatzen dituzten erregistro ofizialak kudeatzea, operadoreenak barne.
- d) Mahastizainen eta upeltegien hautesle-errolak egitea eta eguneratuta edukitzea.
- e) Babestutako produktua defendatzea, bai eta jatorri-deituraren izena babestea ere, marken erregistroa eta zeinu bereizgarriak, Interneteko domeinuen izenak eta jabetza industrialeko beste eskubide batzuk barne.
- f) Ardoak kalifikatzea eta deskalifikatzea, egoki iritzitako analisi fisiko-kimikoak eta organoleptikoak egin ondoren, baldin eta operadoreek funtzio hori eskuordetu badute, eta, hala badagokio, dagokion ziurtagiria ematea.
- g) Baldintza-agiria eta arau-testu honetan jasotako xedapenak betetzen direla zaintzea.
- h) Ekoizpen- eta merkaturatze-sistema propioen ezagutza eta aplikazioa ikertzea eta zabaltzea.
- i) Baldintza-agirian aldaketak proposatzea.
- j) Erregelamendu-proposamena eta horren aldaketak aurkeztea Eusko Jaurlaritzan elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen sailburuordetzan, onartu ondoren.
- k) Txostena egitea, ekoizpen-eremuan dauden lurretan landaketa berriak, birlanaketak eta mahastien ohiko ordezkapenak baimentzeko, Mahastien Erregistroan inskriba daitezen.
- l) Jatorri-deitura babestuko ardoen kalitate-ezaugarriei eta datu estatistikoei buruzko informazioa ematea kontsumitzaileei.
- m) Eusko Jaurlaritzan elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen sailburuordetzan salatzea baldintza-agirian eta gaiari eta aplikazio-eremuari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoarekin bat ez datozen praktikak.
- n) Babestutako produktuen ekoizpenari, elaborazioari eta merkaturatzeari buruzko estatistikak egitea, barne-erabilerarako, hedatzeko eta orokorrean ezagutzeko.
- o) Nahitaezko kuotak eta zerbitzuak emateagatik tarifak ezarri, kudeatu eta galdatzea.
- p) Jatorri-deitura babestuari atxikitako produktuaren edo operadorearen ziurtagiriak ematea, interesdunak hala eskatuta.
- q) Merkataritza-etiketek izen babestua behar bezala erabiltzeko bete behar dituzten gutxieneko baldintzak ezartzea, eta kontraetiketak, zigiluak eta beste berme-marka batzuk kudeatzea.
- r) Kanpaina bakoitzerako mahats-bilketako kanpainako arauak eta prozesu horietan eragina izan dezaketen errendimenduak, ekoizpeneko edo eraldaketako gehieneko mugak edo urteko beste edozein koiunturako alderdi ezartzea, kalitatea babesteko eta hobetzeko irizpideetan oinarrituta, eta baldintzen agirian ezarritako muga barruan.
- s) Eremu geografikoaren garapen jasangarria zaintzea.
- t) Aurrekontuak egin, onartu eta kudeatzea, bai eta bere jabetzako ondasunak administratu, eskuratu, besterendu eta kargatzea ere.
- u) Erregelamendu honek eta estatuko legeriak, autonomikoak edo nazioz gaindikoak esleitzen dizkien beste funtzio batzuk, bai eta eremuarekin zerikusia duen eta helburuak lortzera bideratuta dagoen beste edozein jardura ere.

v) Eusko Jaurlaritzan elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen saileko sailburuordetzak berariaz esleitutako funtzio guztiak betetzea, jatorri-deitura babestuekin lotuta.

2.– Deskribatutako funtzioak honako hauek modu aktiboan kontuan hartuta garatu beharko dira: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren helburua eta bi generoen egoerak, baldintzak, nahiak eta beharrianak. Horretarako, Kontseiluaren ikerketak, estatistikak eta proposamenak egitean, genero-ikuspegia txertatuta eduki beharko dute, sexuaren arabera bereizitako informazioa erabiliz eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak hobeto ezagutzea ahalbidetuko duten adierazleak sartuz.

7. artikulua.– Betebeharrak.

Legeria orokor aplikagarrian ezarritakoez gain, hauek izango dira:

- 1) Produktuaren baldintza-agiria betetzen dela egiaztatzea kontrol-lanen eremuan.
- 2) Nahitaezko saiakuntzen, kontrolen, ikuskapenen, auditoretzen, laginketen eta analisi-zehaztapenen txostenak edo emaitzak ematen direla ziurtatzea, bai eta adostasun-ziurtagiria ematen dela ere, zuzenean edo eskuordetuta.
- 3) Baldintza-agiria betetzen ez bada, operadorearen adostasun-ziurtagiria ezereztea edo kentzea, kontrol ofizialeko eginkizunak eskuordetu zaizkionean.
- 4) Operadoreei egiten zaizkien ziurtagiriei eta ikuskapenei buruzko dokumentazioa bost urtez gordetzea.

III. KAPITULUA

ANTOLAMENDUA. KORPORAZIOKO KIDEAK

8. artikulua.– Kontseilu Arautzailearen egitura.

1.– Osoko Bilkurak, presidente-funtzioak betetzen dituen pertsonak eta presidenteorde-funtzioak betetzen dituen pertsonak osatuko dute Kontseilu Arautzailea, jatorri-deitura babestua kudeatzeko organoa.

Halaber, idazkari-funtzioak beteko dituen pertsona bat izendatuko da, zeinak beteko baititu kudeaketa-organoak agintzen dizkion funtzioak.

2.– Kontseilu Arautzaileak, zuzendaritza-organoak osatuko dituzten pertsonak izendatzekoan, eta Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legean jasotakoa behar bezala betez, emakumeen eta gizonen arteko ordezkaritza orekatua bermatu beharko du, salbu eta erabat ezinezkoa denean, arrazoi oinarritutako, objektiboak eta behar bezala arrazoiak direla-eta.

9. artikulua.– Osoko Bilkura.

1.– Gobernu-organo gorena da, eta jatorri-deitura babestuaren lan-ildoak ezartzeko ardura du.

Kontseilu Arautzailearen kide anitzeko gobernu-organo gisa eratzen da, eta jatorri-deitura babestuaren erregistroetan inskribatutako mahastien eta upeltegien titularren ordezkaritza du.

2.– Kide hauek izango ditu:

a) Presidente-funtzioak beteko dituen pertsona bat.

b) Presidenteorde-funtzioak beteko dituen pertsona bat.

c) Bokal izango diren lau pertsona.

10. artikulua.– Kontseilu Arautzailearen Osoko Bilkuraren funtzioak.

Kontseilu Arautzailearen Osoko Bilkuraren funtzioak dira erregelamendu honetan eta baldintzen pleguan jasotako xedapenak betetzea eta betearaztea, horretarako beharrezkoak diren barne-xedapenak proposatuz eta hartzen dituen erabakiak betearazteko aginduz. Bereziki, hauek:

- 1) Jatorri-deitura babestuaren Kontseilu Arautzailearen jarduera zuzentzea eta kudeatzea.
 - 2) Jatorri-deitura babestuaren izen ona eta sustapena zaintzea, eta erabilera oker oro salatzeari eskumena duten administrazio- eta jurisdikzio-organismoetan.
 - 3) Kontseilu Arautzailearen barne-araubidea antolatzea, erregelamendu-proposamena, kalitate-eskuliburua, prozedurak, jarraibide teknikoak eta gainerako arauak onartuz, eta zerbitzuak antolatzea eta zuzentzea.
 - 4) Jatorri-deitura babestuaren erregistroen kudeaketa gainbegiratzea.
 - 5) Erregelamendu honetan aurreikusitako funtzionamendu-kuotak ezartzea, bai eta kontrol- eta ziurtapen-egiturako zerbitzuak emateagatikotako tarifak ere.
 - 6) Babestutako produktuetan erabil daitezkeen aurrealdeko eta atzealdeko etiketa komertzialak berrikustea, jatorri-deitura babestuari eragiten dioten alderdietan, eta ontzien ezaugarriak ezartzea, betiere bermatu behar baita bigarren erabilerarik ez izatea.
- Kontsumitzaileak nolabait nahas ditzaketenak ez dira onetsiko. Halaber, etiketa bati emandako baimena deuseztatu egin daiteke, enpresa jabearen etiketa horretan adierazitako inguruabarrak aldatuz gero.
- 7) Kanpaina bakoitzerako, kalitatea defendatzeko eta hobetzeko irizpideetan oinarrituta eta agirian ezarritakoaren barruan, ekoizpen- eta eraldaketa-errendimenduak eta gehieneko mugak edo prozesu horietan eragina izan dezakeen urteko beste edozein kointurako alderdi ezartzea.
 - 8) Aurrekontuak, urteko memoria eta aurreko ekitaldiko aurrekontu-likidazioa onartzea. Hala-ber, ezohiko aurrekontuak eta derramak onartzea helburu espezifikoak finantzatzeko, hala nola: publizitatea, ikerketa, etab.
 - 9) Diru-sarrerak eta funtsak administratzea, Kontseilu Arautzailearen finantzaketa-baliabideak zehaztuta, eta kontrol- eta ziurtapen-tarifak kalkulatzeko oinarriak onartzea.
 - 10) Idazkariak egindako kudeaketa ekonomikoaren jarraibide orokorrak ezartzea eta, hala badagokio, berrestea.
 - 11) Ondarea besterentzea eta kreditu-eragiketen hitzarmenak onartzea. Kontseilu Arautzailearen alde dohainik egindako jarauntsiak, dohaintzak, legatuak edo beste edozein ondasun-esleipen onartzea.
 - 12) Barne-araubidea eta zerbitzuak antolatzea, eta langileak kontratatzea, kargugabetzea, kaleratzea edo berritzea.
 - 13) Baldintza-agiria aldatzeko proposamena egitea Eusko Jaurlaritzan elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen sailburuordetzari.

14) Erregelamendu-proposamena eta horren aldaketak aurkeztea Eusko Jaurlaritzan elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen saileko sailburuordetzari, onartu ondoren.

15) Kontrol- eta ziurtapen-organismoa hautatzea, zeregin horiek Kontseilu Arautzaileak berak egiten ez dituenean. Operadore guztiak egongo dira organismo horren mende.

16) Kontrol ofizialeko zereginak eskuordetu direnean, Alderdien Komiteko kide diren pertsona fisiko edo juridikoei proposatzea.

17) Administrazio publikoei beren eskumeneko gaietan bidali behar zaizkien txostenak onartzea.

18) Jatorri-deitura babestua defendatzeko edozein jurisdikzioaren aurrean akzioak gauzatzeari eta errekurtsioak jartzeari buruzko erabakiak hartzea, jatorri-deitura babestuari eta haren Kontseilu Arautzaileari eragiten dioten edozein motatako lege-xedapenen aurka egitea barne.

19) Urta-be edo uzta bakoitza kalifikatzea.

20) Osoko bilkuraren hauteskunde-prozeduraren deialdia erabakitzea.

21) Diziiplina-ahala baliatzea.

22) Jatorri-deitura babestuari lotutako ustezko arau-hausteengatik zehapen-espedienteen berri izatea, berak ireki ez baditu.

23) Beste funtzio propio batzuk, baldin eta beste organo batzuei ez badagozkie edo ez bazaizkie berariaz esleitu.

11. artikulua.— Osoko Bilkuraren jarduteko araubidea.

1.— Osoko Bilkura osatzen dutenen eskubideak.

a) Osoko Bilkura osatzen duten guztiek eskubide hauek dituzte:

i) Gutxienez lau egun lehenago jasotzea bilkuren deialdia; bertan, gai-zerrenda eta aurreko bilkuraren aktaren zirriborroa jasoko da. Gai-zerrendan agertzen diren gaiei buruzko informazioa Osoko Bilkurako kideen eskura egongo da epe berean, eta gai-zerrendako puntuak eragiten dieten txostenen eta agirien kopia eskatu ahal izango dute.

Gaia presazkoa dela-eta presidente-funtzioak betetzen dituen pertsonaren iritziz beharrezkoa denean, gutxienez hogeita lau ordu lehenago deituko zaie bokalei, jaso izanaren berri izatea ahalbidetzen duen edozein bitarteko egokiren bidez.

ii) Bilkuretako eztabaidetan parte hartzea.

iii) Galde-eskeak egitea.

iv) Bere izaerari datxekion beste funtzio batzuk; funtzio horiek betetzeko behar duen informazioa eskuratu ahal izango du.

b) Botoa emateko eskubidea presidente-funtzioak betetzen dituen pertsonari eta bokalei dagokie, bai eta, hala badagokio, boto partikularra ematea ere, botoaren esanahia eta arrazoiak adierazita.

Boto-eskubiderik gabeko Osoko Bilkurako kideek beren iritzia agerraraz ditzakete bileren aktan.

2.— Osoko Bilkuraren saioak.

a) Kontseilu Arautzailearen Osoko Bilkura gutxienez hiru hilean behin bilduko da, bai eta presidente-lanak egiten dituen pertsonak beharrezkotzat jotzen duen guztietan edo bokalen gehiengoak hala eskatzen duenean ere.

b) Bilkuretan ezin izango da gai-zerrendan ez dagoen erabakirik hartu, salbu eta Osoko Bilkurako kide guztiak bertan badaude eta aho batez hala erabakitzen badute.

c) Kontseilu Arautzailearen Osoko Bilkura behar bezala eratzeko, presidente- eta idazkari-funtzioak beteko dituzten pertsonak beharko dira, eta, hurrenez hurren, aldezturik zehazten den karguak edo Kontseilu Arautzaileari atxikitako pertsonak ordezkatu ahal izango ditu.

Era berean, bilkura behar bezala eratzeko, kideen gehiengoak egon behar da bertan (erdia gehi bat).

d) Edonola ere, Osoko Bilkura balio osoz eratuko da, kide guztiak bertan daudenean eta aho batez hala erabakitzen dutenean.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ordezkari bat edukiko du, elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen sailak izendatua, eta Bizkaiko Foru Aldundiak beste bat, nekazaritzaren arloan eskumena duen foru-diputatuak izendatua. Hitza izango dute, baina botorik ez.

f) Titular bat ezin bada bilkurara joan, horren berri emango die bai Osoko Bilkurari bai ordezkotzat izendatutako pertsonari, hura haren ordeztatu joan dadin.

3.– Osoko Bilkuraren erabakiak.

1) Kontseilu Arautzailearen Osoko Bilkuraren erabakiak boto-eskubidea duten bertaratutako kideen gehiengoz hartuko dira, eta, berdinketa gertatuz gero, presidentearen kalitatezko botoak ebatziko ditu, salbu eta bota ere izendatu badute.

2) Jatorri-deitura babestuen erregelamendua aldatzeko proposamena onesteko, Kontseilu Arautzaileko kideen bi hereneko gehiengo kualifikatua beharko da, bai eta mahastien azalera handitzeko proposamenak onesteko ere. Gero, administrazio eskudunari bidaliko zaizkio, onetsi ditza.

4.– Osoko Bilkuraren erabakiak jakinaraztea:

a) Kontseilu Arautzailearen erabakiak, administrazio-ahalez baliatuta hartuz gero, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera jakinarazi eta argitaratuko dira.

b) Aurrekoa gorabehera, Kontseilu Arautzailearen erabaki batek «Bizkaiko Txakolina / Txakoli de Bizkaia / Chacolí de Bizkaia» deiturako ardoen ekoizpenean edo elaborazioan ari diren pertsona edo enpresa batzuk ukitzen baditu eta partikularra ez bada, kontseiluaren bulegoetan erakutsiko da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko.

5.– Erregelamendu honetan ezarri ez den guztian, Kontseilu Arautzailearen funtzionamendua Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluko II. kapituluko 3. atalean kide anitzeko organoentzat ezarritako araubidera egokitu beharko da.

6.– Kontseiluko kideek beren jardunean edozein hizkuntza ofizial erabili ahal izango dute. Kontseiluak hala erabakitzen badu, euskaraz egin ahal izango dira bileretarako deialdiak, gai-zerrendak, aktak, ziurtagiriak eta, oro har, testu idatziak, euskara normalizatzeko. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.

12. artikulua.– Batzorde Iraunkorra.

1.– Osoko Bilkurak batzorde iraunkor bat eratu ahal izango du. Batzorde hori presidente-funtzioak betetzen dituen pertsonak, idazkari-funtzioak betetzen dituen pertsonak eta Osoko Bilkurak

izendatzen dituen bi bokal titularrek osatuko dute, ordezkaritza parekidearen printzipioa errespetatuz. Bata ekoizleen sektorekoa izango da eta bestea elaboratzaileen sektorekoa.

2.– Batzorde hori eratzea erabakitzen den bilkuran, esleitzen zaizkion berariazko gaiak eta funtzioak erabakiko dira, bai eta jarduteko araubidea ere, eta Osoko Bilkurari jakinarazi beharko zaizkion erabakiak adieraziko dira, jakinaren gainean egon dadin edo berrets ditzan.

3.– Urtero egingo ditu ohiko eta ezohiko aurrekontuen proiektua eta haiei erantsitako memoria, Osoko Bilkurak onar edo uka ditzan.

4.– Gai zehatzak aztertzeako egokitzen jotzen dituen lan-batzordeak ezarriko ditu.

5.– Hartzen dituen erabaki guztiak idazkari-funtzioak betetzen dituen pertsonak edo gai zehatzetarako izendatzen den pertsonak kudeatu eta gauzatuko ditu, eta, nolanahi ere, kontseiluaren Osoko Bilkurari jakinaraziko zaizkio egiten den lehenengo bileran.

13. artikulua.– Batzordeak eta lantaldeak.

Osoko Bilkurak egoki iritzitako aholku-batzordeak eta lantaldeak sortzea erabaki ahal izango du. Haien funtzioa da Osoko Bilkuraren eskumenekin zerikusia duten gaiak eta proposamenak aztertzea. Bertan hartutako erabakiak Osoko Bilkurak berretsi beharko ditu.

14. artikulua.– Presidente-funtzioak betetzen dituen pertsona.

1.– Presidenteak funtzio hauek izango ditu:

a) Kontseilu Arautzailearen lege- eta erakunde-ordezkaritza izatea hirugarren edozein entitatearen aurrean eta Osoko Bilkurak eskuordetzen dion beste edozein entitatearen aurrean. Behar izanez gero, ordezkaritza hori kontseiluko edozein kideri eskuordetu ahal dio berariaz.

b) Osoko Bilkuraren ohiko eta ezohiko bileren deialdia erabakitzea, gai-zerrenda finkatzea eta Batzorde Iraunkorraren proposamenak jasotzea.

c) Batzorde Iraunkorraren ohiko eta ezohiko bileretarako deialdia egitea, eta gai-zerrenda finkatzea, gainerako kideek behar besteko aurrerapenaz egindako eskaerak barne hartuta.

d) Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren bilkuretako buru izatea, eztabaidak moderatzea eta haiek etetea, justifikatutako arrazoiak daudenean.

e) Berdinketak direnean, bere botoarekin berdinketa haustea, hartu behar diren erabakiak hartu ahal izateko.

f) Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren aktak eta erabakien ziurtagiriak ikus-onestea.

g) Kontseilu Arautzaileko langileak kontratatu, berritu edo kargugabetzea, Osoko Bilkuraren alde aurreko onespenearekin.

h) Agintaritza eskudunari Osoko Bilkuraren erabakiak igortzea, ezagutu behar dituenak, bai eta, duten garrantzia dela eta, Administrazioak ezagutu behar dituenak ere, besteak beste, ekoizpean eta merkatuan gorabeherak izateagatik.

i) Osoko Bilkurak hartutako erabakiak betearazten direla zaintzea.

j) Zerbitzuak antolatzea eta zuzentzea.

k) Kontseilu Arautzailearen erabakiekin bat etorritik, haren sarrera eta funtsak administratzea eta ordainketak egiteko aginduak ematea, indarreko legeria beteta.

l) Kontseilu Arautzaileko presidente izateak berez dakartzan beste funtzio guztiak betetzea.

2.– Presidente ez badago, gaixorik badago edo errefusatuta badago, presidenteorde-funtzioak betetzen dituen pertsonak ordezkatu du. Heriotzagatik, dimisioagatik edo ezintasunagatik kargua hutsik geratzen bada, presidenteorde-funtzioak betetzen dituen pertsonak ordezkatu du, harik eta presidente berria izendatu arte. Izendapena hilabeteko epean egin behar da. Presidente ordezkatu duenaren agintaldia betetzeko geratzen zaion denborarako baino ez da izango.

3.– Kargua lau urtean behin berrituko da, eta berrautatu ahal izango da.

4.– Kasu hauetan utziko du kargua: agintaldia amaitutakoan; berak eskatzen duenean –dimisioa onartu ondoren–; bera izendatzeko eskumena duen organoak erabakitzen duenean.

15. artikulua.– Presidenteorde-funtzioak beteko dituen pertsona.

Presidenteorde-funtzioak betetzen dituen pertsonak presidente ordezkatu du, hura falta denean, gaixorik dagoenean edo eskuordetze espresuaren bidez.

16. artikulua.– Bokalak.

1.– Bokalkarguen titularrak eta ordezekoak jatorri-deitura babestuko erregistroetan inskribatutako pertsona fisiko edo juridikoen hautatuko dituzte euren artean, lau urteko agintaldirako.

2.– Pertsona juridiko bat kide gisa hautatzen denean, Osoko Bilkurako bilkuretan ordezkatu duen pertsona fisikoa izendatuko du.

3.– Bokalak lau izango dira; nolanahi ere, parekotasuna egongo da mahastizaintzaren arloko eta ardagintzaren arloko ordezkarien artean.

4.– Kontseilu Arautzaileko kide bakoitzak bere ordezkoa izango du, titularra bezala hautatua. Edozein arrazoiengatik bokal batek kargua uzten badu, ordezekoak hartuko du haren lekua, eta azken horrek ere kargua uzten badu, titular eta ordezeko berriak izendatuko dira ezarritako moduan, baina haien agintaldiak kontseilua lehen aldiz berritu arte baino ez du iraungo.

5.– Bokalkarguak dituztenek lotuta egon beharko dute ordezkatzeko dituzten sektoreei, zuzenean edo ordezkatu behar duten enpresek izendatuta. Hala ere, zenbait erregistroetan inskribatutako pertsona fisiko edo juridiko berak ezin izango du Kontseilu Arautzailean ordezkaritza bikoitza izan, hau da, une bakoitzean onartutako hautesle-erroldeko batengatik baino gehiagorengatik, ez zuzenean, ez haren filialen edo bazkideen sinaduren bidez.

6.– Karguaren indarraldian bokal batek zehapena jasotzen badu Erregelamendu honetan arauturiko gaietako batean arau-hauste astuna egiteagatik, kargua utzi beharko du berak edo bere enpresak. Eraitza bera izango da elkarren segidako hiru bilkuratara edo txandakako bostetara ez joateagatik, jatorri-deitura babestuko erregistroetan baja emateagatik edo erregelamendu honek arautzen dituen gaietan arau-hauste oso astuna egin eta zigortuak izateagatik.

7.– Inskribatutako enpresa bateko zuzendaritzako kide izateagatik kontseiluko bokal gisa hautatuak izan diren pertsonen kontseiluko kargua utziko dute, enpresa horren barruan kargu hori izateari uzten diotenean, nahiz eta sektoreari lotuta jarraitu beste enpresa batera pasatzeagatik, eta ordezkoa ezarritako moduan izendatuko da.

17. artikulua.– Idazkari-funtzioak beteko dituen pertsona.

1.– Kontseilu Arautzaileak idazkari-funtzioak betetzeko pertsona bat izango du, Osoko Bilkurak izendatua, eta haren mende egongo da zuzenean.

2.– Honako funtzio hauek izango ditu:

a) Kontseilu Arautzailearen bileretarako deialdia egitea, presidente-funtzioak betetzen dituen pertsonaren aginduz, bai eta kontseiluko kideei zitazioak egitea ere.

b) Kontseilu Arautzailea osatzen dutenen komunikazio-egintzak jasotzea, eta, beraz, jakin behar dituen jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak edo beste edozein idazki jasotzea.

c) Gaiak bideratzeko prestatzea, aktak eta Kontseilu Arautzailearen bileretako erabakien ziurtagiriak egitea eta idaztea, dagozkien liburuetan, presidentearen oniritziarekin.

d) Kontabilitatea eramatea, kobrantzak eta ordainketak proposatzea eta aurrekontuak idaztea.

e) Kontseilu Arautzailearen eskumeneko gaiak prestatzearekin eta bideratzearekin zerikusia duten gainerako funtzioak, salbu eta babestutako produktuen ebaluazioarekin zerikusia dutenak.

f) Kontsulten, irizpenen eta onartutako erabakien ziurtagiriak egitea.

g) Administrazioko langileen eta Kontseilu Arautzailearen organo, zerbitzu eta sailen zuzendaritza, koordinazio orokorra eta kudeaketa, salbu eta kontrol- eta ziurtapen-egiturarena, zeregin horiek Kontseilu Arautzailearen esku utzi badira.

h) Aurrekontuaren aurreproiektua eta jardueren urteko memoria idaztea.

i) Presidenteak edo Osoko Bilkurak eskuordetzen dizkieten gainerako kontuak.

j) Bileretara joatea, hitzarekin baina botorik gabe, Osoko Bilkura osatzen dutenen artetik izendatzen dutenean izan ezik; kasu horretan ere botoa emateko eskubidea izango du.

18. artikulua.– Hauteskunde-sistema.

1.– Kontseilu Arautzailearen Osoko Bilkurak hauteskundeetarako deia egingo du ezarritako epeetan, eta Eusko Jaurlaritzan elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen sailari jakinaraziko dio, titularrak izenda dezan. Hautagai bakarraren kasuan, ez da beharrezkoa izango hauteskunde-prozesurik egitea.

Kontseilu Arautzaileko karguak lau urtez behin berrituko dira. Kargudunak berrautatu daitezke.

2.– Osoko Bilkurako bokal hautetsien bi herenen gehiengo kualifikatuz hautatuko da presidentea, eta hautatutako bokaletako bat edo beste pertsona bat izan daiteke.

3.– Presidenteordea presidentea izendatzeko erabilitako moduan izendatuko da.

4.– Presidente edo presidenteordea bokalen artetik hautatzen badira, parekotasunari eusteko, ez dira bokalen postuak beteko, eta, presidentearen kasuan, kalitatezko botoa galduko du.

5.– Bokalak honela hautatuko dira:

a) Mahastizaintzaren sektoretik bi ordezkari, «Bizkaiko Txakolina / Txakoli de Bizkaia / Chacolí de Bizkaia» deiturako ardoa egiteko mahatsez hornitzen duten mahastizainek, dagokion erregistroan inskribatuek, euren artean hautatuak.

b) Ardogintzaren sektoretik bi ordezkari, dagokion erregistroan inskribatutako upeltegien jabeek euren artean hautatuak.

Bokalak, izendatu eta hilabete igaro aurretik, jabetu behar dira karguaz.

6.– Idazkari-funtzioak betetzen dituen pertsonari dagokionez, Osoko Bilkurak hartuko du hura izendatu, kargugabetu edo aldi baterako ordezkatzeko erabakia.

19. artikulua.— Alderdien Batzordea.

1.— Alderdien Batzordea arduratuko da kontrol- eta ziurtapen-sistemaren funtzionamendu egokia zaintzeaz funtzio hori Kontseilu Arautzailearen esku utzi denean, eta kontrol- eta ziurtapen-sistemaren edukiarekin eta funtzionamenduarekin zerikusia duten interes guztien parte-hartzea izango du, horietako bakar bat ere nagusitu gabe.

2.— Osaera eta funtzioak prozeduran eta kalitate-eskuliburuan ezarriko dira. Nolanahi ere, Osoko Bilkuraren erabakiz proposatuko dira kideak.

3.— Kontrol- eta ziurtapen-sistemaren funtzionamendu egokia gainbegiratzeko funtzioetako bat izango da aurrekontuak onartu aurretik txosten bat egitea, kontrol-egiturak giza baliabide eta baliabide ekonomiko nahikoak dituela bermatzeko. Halaber, beharrezkoa izango da, Osoko Bilkurara bidali aurretik, horren berri ematea kontrol- eta ziurtapen-egiturako langileak kontratatu, kargugabetu, kaleratu edo berritu behar direnean.

20. artikulua.— Kontseilu Arautzailearen zerbitzuak.

1.— Kontseilu Arautzailearen zerbitzuak administrazio- eta sustapen-arloan egituratzen dira, Kontseilu Arautzaileko idazkari-funtzioak betetzen dituen pertsonaren zuzendaritzapean eta koordinaziopean.

2.— Administrazio- eta sustapen-arloek beren gain hartuko dituzte giza baliabideekin eta baliabide materialekin, kudeaketa ekonomikoarekin, sustapen-jarduketekin eta administrazioarekin, eta Kontseilu Arautzailearen idazkaritzarekin lotutako gai guztiak, bai eta beste arlo batzuei esleitu gabeko beste edozein gai orokor ere. Gainera, arlo bakoitzeko arduradunak izango dituzte.

21. artikulua.— Kontseilu Arautzaileko langileak.

1.— Kontseilu Arautzaileak bere helburua betetzeko behar dituen langileak kontratatuko ditu lan-kontratupean.

2.— Langileen kontratazioa Osoko Bilkurak onartutako plantillen arabera egingo da, betiere aurrekontuan dagokion partida esleitu bada. Behar besteko publizitatea bermatzeko duen deialdi baten bidez egingo da, eta deialdi horretan izangaiek parte hartzeko baldintzak eta baloratu beharreko merezimenduak jasoko dira, zeinak Osoko Bilkurak ezarriko baititu.

3.— Kontseiluak aldi baterako behar diren langileak kontratatu ahal izango ditu lan bereziak edo jakinak egiteko, betiere aurrekontu-zuzkidura horretarako gaitzen bada.

IV. KAPITULUA

OPERADOREEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

22. artikulua.— Operadoreen eskubideak.

1.— Operadoreek eskubidea izango dute jatorri-deitura babestuaren izena, sinboloak, ikurrak, publizitate-legendak, dokumentazioa, etiketak edo beste edozein propaganda erabiltzeko hark babestutako ardoak egiteko mahatsaren ekoizpenean, elaborazioan bertan, publizitatean, dokumentazioan edo etiketan. Horretarako, ezinbestekoa izango da operadorea dagokion erregistro ofizialean inskribatzea, eta, horrez gain, produktua erregelamendu honetan eta ardoak egiteko aplikatu behar diren gainerako arauetan jasotako arauetara egokitzea, bai eta produktu horiek ezauzgarritu behar dituzten baldintza fisiko-kimikoak, enologikoak eta organoleptikoak betetzea ere.

2.– Kontseilu Arautzaileak mahastizain agiria edo txartela emango die Mahastien Erregistroan inskribatutako pertsona fisiko eta juridikoei: bertan inskribatutako mahastiaren azalera zehaztuko da (barietateak banakatuta) eta kanpaina bakoitzeko gehieneko ekoizpena adieraziko; horiez gainera baliteke beste datu batzuk ere ezartzea mahastiak ondo identifikatu eta kontrolatzeko.

23. artikulua.– Operadoreen betebeharrak.

1.– Jatorri-deitura babestuko erregistroetan titular gisa inskribatutako pertsona natural edo juridikoek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Ekoizpenari, merkaturatzeari eta ingurumena babesteari buruz jakinaraztearen arloan Kontseilu Arautzaileak hartutako arauak aplikatzea.

b) Kontseilu Arautzaileak eskatutako informazioa helaraztea, helburu estatistikoekin eta ekoizpenaren eta merkaturatzearen jarraipena egiteko.

c) Jatorri-deiturak ezarritako ereduaren arabera autokontrol-sistema bat izatea, ardoek baldintza-agiriko eskakizunak betetzen dituztela ziurtatzeko eta lote bakoitzaren trazabilitatea eta kalifikazioa bermatzeko.

d) Ardoak kalifikatzeko aurkeztea, Kontseilu Arautzaileak horretarako ezarritako prozeduraren eta epeen arabera. Kontseilu Arautzaileari eskuordetu ahal izango zaizkio loteen kalifikazioarekin lotutako zereginak, eta eskuordetze-dokumentu batean formalizatuko da inguruabar hori. Ardoak kalifikatzeko eskabideak aurkezteko epea bat etorriko da ardo-kategoria bakoitzerako kalifikazio-prozeduran ezarritakoarekin. Horrenbestez, hauek izango dira eskabide-epaiek:

– Ardo gaztea: azaroaren 15etik mahats-bilketaren hurrengo urteko azaroaren 15era arte.

– Ardo berezia: maiatzaren 1etik hurrengo urteko apirilaren 30era arte (urtebete).

– Uztagoienak (mahats-bilketa berantiarreko ardoak): maiatzaren 1etik hurrengo urteko apirilaren 30era arte (urtebete).

– Apardunak (ardo apardunak): maiatzaren 1etik hasita hartzidura bateko ardo apardunen kasuan, eta hurrengo urteko azaroaren 15etik hasita hartzidura bikoitzeko ardo apardunen kasuan, upeltegiek merkaturatzeko asmoarekin kalifikazioa eskatzen duten arte.

– Apartak (Berezia Aparta motako ardoak): mahats-bilketaren urteko azaroaren 15etik apirilaren 30era arte, urte eta erdi geroago.

Salbuespen gisa, eta Kontseilu Arautzaileak hala erabaki ondoren, beste epe batzuk onartu ahal izango dira.

Ardo deskalifikatuei dagokienez:

– Gordailu bereizietan eta ontzi independenteetan biltegitatu beharko dira, behar bezala errotulaturik, Kontseilu Arautzailearen kontrolpean. Kontseilu Arautzaileak ebazpen bidez zehaztuko du zer egingo den produktu deskalifikatuarekin.

– Aurrez deskalifikatuta dagoen beste produktu batekin nahastuta lortutako produktuak deskalifikatutzat joko dira.

– Produktu deskalifikatua ontziz edo lekuz aldatzeko, ezinbestekoa da Kontseilu Arautzaileari behar besteko aurrerapenaz jakinaraztea, hark behar diren kontrol-neurriak har ditzan.

– Egiaztatu beharko dute produktuaren helburua bat datorrela Kontseilu Arautzaileak zehaztutako erabilerekin.

e) Kontrol- eta ziurtapen-araubidearen mende jartzea, kontrol- eta ziurtapen-organismoarekin lankidetzan aritzea eta ekoizpenari, elaborazioari edo merkaturatzeari buruz eskatzen zaizkion datu eta dokumentu guztiak ematea.

f) Erregelamendu honetan aurreikusitako betebeharrak ez betetzeagatiko erantzukizuna hartzea.

g) Nahitaez egin behar dituzten aitorpenak edo txostenak bidaltzea. Nolanahi ere, Upeltegien Erregistroan inskribatutako enpresa bakoitzak merkaturatzen duen ardo-kantitatea bat etorriko da mahats-bilketa propioko edo erositako mahats-kantitatearekin, lehenagoko kanpainetako izakinekin eta inskribatutako beste enpresa batzuei erositako ardo eta muztio kopuruarekin.

h) Nahitaezko kuotak eta tarifak ordaintzea, jatorri-deitura babestuko kide izatearen ondoriozko zerbitzuak eskuratzeko eta eskubideak baliatzeko, bai eta antolamendu- eta funtzionamendu-arauei ondoriozko kostua finantzatzeko ere.

i) Erregelamendu honetan jasotako gainerako xedapenak betetzea, bai eta, beren eskumenen esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoan elikagaien kalitatearen arloan eskumena duten organismoek emandako akordioak ere.

2.– Inskribatutako enpresen arteko mahats, muztio edo ardo igorpenetan, mahastizaintzari eta ardogintzari buruzko indarreko legerian ezarritako dokumentazioaz gainera, upeltegien arteko zirkulaziorako orria ere bidali behar da (Kontseilu Arautzaileak emango du berak erabakitzen duen moduan).

3.– Ardoaren ekoizpena eta elaborazioa, ardo izakinak, eta merkaturatutako ardo motak eta haien kalitatea eta jatorria frogatzeko behar den guztia kontrolatu ahal izateko, mahastien eta upeltegien titular diren pertsona fisiko eta juridikoek ondoko betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Urtean behin, bilketa amaitutakoan eta azaroaren 7a baino lehen, Mahastien Erregistroan inskribatutako enpresa guztiek inskribatutako lurzati bakoitzeko uztaren aitorpena aurkeztu behar dute, eta, bertan, mahats-barietateak, mahatsaren destinoa eta, salduz gero, eroslearen izena adierazi behar dituzte. Mahats mota bat baino gehiago ekoitziz gero, bakoitzaren kopurua aitortu behar da.

«Mahats-bilketa berantiarreko ardoak» (Uztagoienak) egiteko mahatsa ekoizten duten mahastien kasuan, azaroaren 30a izango da azken eguna.

b) Urtero, azaroaren 30a baino lehen, Ardogintzan eta Botilatzen diharduten Upeltegien Erregistroan inskribatutako enpresa guztiek egin duten ardoaren kopurua aitortu beharko dute, motaren arabera banakatuta. Horrez gainera, saltzen duten ardoa egiteko erabili den mahatsaren jatorria eta haren destinoa adierazi beharko dituzte, eta eroslea eta kopurua zehaztu.

Halaber, kanpaina bakoitzean izan diren produktuen sarrera eta irteeren erregistro eguneratua eduki behar dute, eta ardo motak zehaztu behar dituzte bertan. Kontseilu Arautzaileak eta kontrol- eta ziurtapen-organoak noiznahi eskuratu ahal izango dituzte erregistro horretako datuak.

c) Urtero, irailaren 7a baino lehen, upeltegien erregistroetan inskribatutako enpresek uztailaren 31n eduki dituzten muztio eta ardo kopuruaren aitorpena aurkeztu behar diote Kontseilu Arautzaileari.

4.– Dagokion erregistroan inskribatutako mahastiak eta ustiategi berekoak ez diren eraikinak dauden lurzatietan ezin egon daiteke jatorri-deitura babestuen itzalpean ez dagoen mahatsik, muztiorik ez ardorik.

5.– Dagokion erregistroan inskribatutako upeltegiak dituzten enpresek inskribatutako mahastietako mahatsa eta inskribatutako beste upeltegi batzuetako muztioa edo ardoa baino ezingo dute izan. Era berean, inskripzioan aitortutako lokaletan bakarrik biltegitatu ahal dituzte euren ardoak.

6.– Artikulu honetako 1.e) apartatuan aipatutako aitordenak estatistiketarako baino ez dira erabiliko. Beraz, haietako datuak zenbakitan soilik eman eta argitaratu ahal izango dira, inolako banako aipamenik gabe.

V. KAPITULUA

INSKRIPZIOA ETA ERREGISTROAK

24. artikulua.– Inskripzioa.

Jatorri-deituraren operadore izan nahi duten pertsona fisiko edo juridiko guztiek, Mahastizaintza eta Ardogintza Antolatzeke maiatzaren 7ko 5/2004 Legea betez, Kontseilu Arautzaileari jakinarazi beharko dizkiote beren datuak, erregistro ofizialetan inskriba ditzen.

25. artikulua.– Inskripzioa egiteko baldintzak.

1.– Inskripzio-eskaerak Kontseilu Arautzaileari bidali beharko zaizkio indarreko xedapen eta arauetan eskatzen diren datuak, dokumentuak eta egiaztagirak hark prestatutako inprimaketan erantsita.

2.– Kontseilu Arautzaileak inskripzioa ukatuko die erregelamendu honetako manuei edo mahastiek eta upeltegiek izan behar dituzten izaera teknikoko gai osagarriei buruz Kontseilu Arautzaileak hartutako erabakiei lotzen ez zaizkienei, eta, beraz, kontrol- eta ziurtapen-erakundeak emandako adostasun-ziurtagiria lortzen ez dutenei.

3.– Upeltegien erregistroetan inskribatu aurretik, orokorrean ezarrita dauden erregistroetan inskribatu beharko da, eta Kontseilu Arautzailearen erregistroetan inskribatu aurretik egiaztatu beharko da hori.

4.– Mahastien Erregistroan inskribatu aurretik, landaketak baimentzeko eskumena duten administrazioek ezarritako erregistroetan inskribatu beharko da.

26. artikulua.– Jatorri-deitura babestuko erregistroak antolatzea eta erregistro horietan inskribatzea.

Kontseilu Arautzaileak ezarriko du erregistroetako inskripzioak noiz eta nola berritu behar diren. Horretarako, aldizkako ikuskapenak egingo dira jarraian xedatutakoa betetzen den egiaztatzeko:

1.– Mahastien Erregistroa:

a) Mahastien Erregistroan inskribatu ahal izango dira ekoizpen-eremuan kokatutako mahasti guztiak, baldin eta bertako mahatsa ardo babestuak egiteko erabil badaiteke eta baldintza-agiriko baldintzak betetzen badituzte.

b) Inskripzioan, kasuan kasuko inskripzio- edo alta-prozeduran eskatutako datu guztiak agertuko dira, baldintza-agiriaren arabera. Zehazki, honako datu hauek agertuko dira: jabearen izena; eskubideen titularraren izena; behar denean, kolonoaren, kasailariaren, errentariaren, zentsu-hartzailearen edo aprobetxamendurako beste edozein eskubideren titularraren izena; mahastiaren izena; mahastia dagoen inguruaren eta udalerriaren izenak; mahastizaintzan erabiltzen den azalera; mahats barietateak; mahastia sailkatzeko eta kokatzeko behar diren datuak.

c) Inskripzio-orriarekin batera inskribatu nahi diren lurzatieen plano edo krokis xehatua aurkeztu behar da, Kontseilu Arautzaileak ezartzen duenaren arabera, bai eta Mahastien Erregistroko inskripzio-datuak eta, behar denean, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako landaketa-baimena ere.

d) Kontseilu Arautzaileak inskripzioa ukatuko die erregelamenduko aginduei edo Kontseiluak mahasti eta upeltegien ezaugarri osagarri teknikoei buruz hartutako erabakiei lotzen ez zaizkienei; hau da, kontratatutako kontrol-organismo independenteak emandako adostasun-ziurtagiria lortzen ez dutenei.

2) Ardogintzan eta Botilatzen diharduten Upeltegien Erregistroa:

a) Ardogintzan eta Botilatzen diharduten Upeltegien Erregistroan inskribatuko dira inskribatutako mahastietako mahatsa baino jasotzen ez duten upeltegiak, betiere jatorri-deituraren eremu geografiko berean badaude, eta baldin eta ekoitzitako ardoek jatorri-deitura jasotzeko aukera badute. Botilatzea hauxe da: ardoa itzulgarriak ez diren beirazko ontzietan sartzea, Europar Batasunak baimendutakoarekin bat etorritik.

b) Inskripzioan, hauek agertuko dira gutxienez: enpresa titularraren izena, kokalekua, udalerria eta gunea, inskribatu nahi den erregistroa edo erregistroak, inskripzio horren irismena eta upeltegia behar bezala identifikatzeko behar diren datu guztiak, upeltegia inskribatzeko edo hari alta emateko prozeduraren arabera.

c) Elaborazio- eta botilatze-enpresek honako bitarteko tekniko eta instalazio hauek izan beharko dituzte gutxienez, eta horiek adierazi beharko dituzte inskripzio-eskaeran: biltegiak (horien kopurua, edukiera eta ezaugarriak adieraziko dira), prentsatze-sistema (mota eta ezaugarriak adieraziko dira), ponpak eta iragazkiak, eta botilatze-sistema. Eskaeran, ardogintzako gainerako makina guztien berri ere eman behar da.

Ardogintzako enpresa ez bada lokalen jabea, horren berri eman behar da, eta jabearen izena adierazi.

d) Ardogintzan eta Botilatzen diharduten Upeltegien Erregistroan inskribatu nahi duten upeltegiek indarreko legeria bete beharko dute.

Upeltegiaren titularrak eguneratuta eduki beharko ditu upeltegiari buruzko datuak Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Elikagai Industrien Erregistroan. Halaber, gerta daitezkeen aldaketen berri eman beharko dio, idatziz, Kontseilu Arautzaileari, eta, horrekin batera, erregistroak emandako inskripzioaren kopia eguneratua.

e) Upeltegi bat dagokion erregistroan inskribatzeko, edo haren inskripzioak indarrean jarraitzeko, ezinbestekoa da lokal lokabean egotea eta bere eraikin eta instalazioen eta jatorri-deitura babestua erabiltzeko eskubidea ez duten ardoak egiten, manipulatzeko edo biltegitratzen diren beste lokal batzuen artean bide publikoa egotea, gutxienez.

3) Etiketen eta marka komertzialen erregistroa.

a) Kontseilu Arautzaileak etiketa edo kontraetiketa zenbakituen inbentario bat izango du, eta bertan jasoko ditu inskribatutako enpresek jakinarazten dizkietenak, jatorri-deitura babestua duten ardoak merkaturatzeko erabil daitezkeen. Kontseilu Arautzaileak berrikusiko ditu etiketa horiek, ziurtatzeko betetzen dutela jatorri-deitura babestuaren erabilerari buruz indarrean dagoen araudia, eta ez dutela nahasterik sortzen beste jatorri-deitura babestu bateko edo inskribatutako beste upeltegi bateko ardoetan erabilitakoarekin.

b) Orobat, erregistroetan inskribatutako enpresek erabili gabeko atzealdeko etiketen eta zigiluen inbentario eguneratua eduki behar dute. Kontseilu Arautzaileak eta kontrol- eta ziurtapen-organoak noiznahi eskuratu ahal izango dituzte erregistro horretako datuak.

c) Erregistro horri lotuta, Marka Komertzialen Erregistro bat ezarriko da. Erregistro horretan sartu ahal izateko, marka bat inskribatuta, pertsonak bere jabetza justifikatu beharko du edo marka horren jabearen berariazko baimena izan beharko du. Nolanahi ere, jabetza industrialaren arloan eta mahastizaintzaren eta ardogintzaren arloan indarrean dagoen legerian ezarritakoa bete beharko da.

d) Erregistro horietan inskribatutako enpresek Kontseilu Arautzaileari jakinarazi beharko dizkiote erabiltzen dituzten marka eta etiketa guztiak, hirugarren batentzat egindako ardoak botilatzeko erabiltzen badira ere.

4.– Inskripzioen indarraldia:

a) Kasuan kasuko erregistroetako inskripzioek indarrean jarrai dezaten, ezinbestekoa izango da jatorri-deitura babestuaren araudiak ezartzen dituen baldintzak betetzea une oro. Horrez gain, baldin eta inskripzioan emandako datuei eragiten dien edozein aldaketa gertatzen bada, inskribatutako pertsonak Kontseilu Arautzaileari jakinarazi beharko diote hori. Kontseilu Arautzaileak inskripzioak baliogabetu edo ezeztatu ahal izango ditu, inskripzio horien titularrek ez badituzte baldintza horiek betetzen. Horretarako, aldizkako ikuskapenak egingo dira apartatu honetan xedatutakoa betetzen den egiaztatzeko.

b) Erregistroak etengabe eguneratuko dira.

c) Operadoreen jardueri eta babestutako produktuei eragiten dien edozein aldaketak baldintza partikular horiek ezartzea edo aldatzea ekar dezake, bai eta inskripzioaren edo berritzearen baldintzak eguneratuko dituen beste ebazpen bat ematea ere.

VI. KAPITULUA

KONTROLA

27. artikulua.– Kontrol-egitura eta -araubidea. Kontrol-organismoa.

1.– Kontseilu Arautzaileak kontrol- eta ziurtapen-sistema bat hautatuko du. Sistema hori haren kudeaketatik bereizita egongo da, eta aukera emango du produktuaren jatorria, kalitatea eta trazabilitatea bermatzeko. Bi aukera daude betekizun hori betetzeko:

a) Kontseilu Arautzailean bertan integratuta dagoen kontrol-organismo batek eduki ahal izango du kontrola. Kasu horretan, kontrol- eta ziurtapen-zuzendariak eta auditoretzako langileek osatuko dute kontrol-egitura. Langile horiek Idazkaritza eta Osoko Bilkuratik independenteak izango dira beren kontrol- eta ziurtapen-funtzioak betetzean, eta Alderdien Batzordeak gainbegiratuko du.

b) Jatorri-deitura babestuaren Kontseilu Arautzailearekin zerikusirik ez duen kontrol- eta ziurtapen-entitate batek ere egin ahal izango du kontrola. Bi kasuetan, kontrol- eta ziurtapen-organismoak hauek bete beharko ditu:

– ISO 17.065 araurako edo hori ordeztzen duen araurako akreditazioa izan beharko du jatorri-deitura babestuaren baldintza-agiriaren egiaztapen-irismenean.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Produktuen Kontrol eta Egiaztapenerako Erakundearen Erregistroan inskribatuta egongo da.
- Horretarako egokiak diren antolakuntza-egitura, baliabide tekniko eta ekonomikoak, dokumentazioa eta lan-sistematika izango ditu, eta haiek kalitate-eskuliburuan eta dagozkion prozeduretan deskribatuko dira.
- Kontrol- eta ziurtapen-langileek kontrol- eta ziurtapen-jarduerak egiteko behar besteko gaitasun teknikoa eta prestakuntza dutela bermatuko dute. Halaber, diskriminaziorik gabeko tratua bermatuko du, bai eta inpartzialtasuna babesteko ezartzen diren mekanismo guztiak beteko dituela ere.
- Kontrol- eta ziurtapen-erakundeak urtero egindako ikuskapenen eta kontrolen eta lortutako emaitzen berri eman beharko dio Eusko Jaurlaritzan elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen organoari.

VII. KAPITULUA

EKONOMIA- ETA FINANTZA-ARAU BIDEA

28. artikulua.– Finantzaketa.

Kontseilu Arautzaileak baliabide hauek izango ditu helburuak betetzeko:

1) Inskribatutakoek ordaindutako kuotak, sailkapen honen arabera:

- a) Nahitaezko kuota finkoa, Mahastien Erregistroan zein Ardogintzan eta Botilatzen diharduten Upeltegien Erregistroan inskribatutako titular guztiek ordaindu beharrekoa. Hasieran ezartzen den urteko nahitaezko kuota finkoaren zenbatekoa 55,63 eurokoa da, inskribatutako titulartasuneko kuota unitario gisa. Ekarpene hori urtero eguneratuko da EAEko KPIaren arabera.
- b) Nahitaezko kuota aldakorak, banaketa-sistema honen arabera ezarriko direnak:
 - i) % 10 Mahastien Erregistroan inskribatuta dauden pertsonen artean, inskribatutako eskubideen azaleraren proportzioan.
 - ii) % 90 Upeltegien Erregistroan inskribatuta dauden pertsonen artean, zigiluen, kontraetiketen edo horretarako ezarritako kontrol-sistema egokiaren arabera.
- c) Ezohiko kuotak, premiazko edo ustekabeko jarduketetan ezarriko direnak. Kontseilu Arautzaileak botoen % 65eko gehiengoa beharko du kuota horiek onartu ahal izateko. Banaketa-sistema nahitaezko kuota aldakorretarako ezarritako bera izango da.
- d) Jasotzen dituen dirulaguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- e) Berari edo berak ordezkatzeko dituen interesei sortutako kalte-galerengatik jasotzen dituen ordainak.
- f) Kontseiluaren ondarea osatzen duten ondasunak eta haren etekinak eta errentak.
- g) Kontseilu Arautzaileak berak hasi eta ebatzitako zehapen-prozeduren ondoriozko zehapenen zenbatekoak.

2) Diru-sarrerak eta gastuak Kontseilu Arautzaileak kudeatuko ditu.

3) Oinarriei aplikatu behar zaizkien ehunekoak Osoko Bilkuraren erabaki baten bidez onartuko dira eta argitaratu egingo dira operadoreek horren berri izan dezaten.

4) Kontseilu Araztaileak urtero memoria bat egingo du garatutako jardueri eta bere ondarearen kudeaketa ekonomikoari buruz; aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa egingo du hurrengo urteko lehen hiruhilekoan, eta diru-sarreraren eta gastuen ohiko aurrekontua egingo du, aurreko urteko urria amaitu baino lehen. Dokumentu horiek Osoko Bilkurak onartu beharko ditu.

VIII. KAPITULUA

ZEHAPEN-ARAU BIDEA

29. artikulua. – Arau orokorrak.

Jatorri-deitura babestuko erregistroetan titular gisa inskribatutako pertsona fisiko edo juridikoek erregelamendu honetan ezarritakoa ez betetzearen ondoriozko erantzukizuna izango dute.

Aipatutako pertsona inskribatuen portaera-arau deontologikoak jasotzen dituzten kudeaketa-organoaren erabakiak gutxienez organoaren webgunean argitaratu behar dira.

Zehapen-ahala egikaritzean, faltaren edo arau-haustearen astuntasunarekiko proportzionaltasun egokiaren irizpideak errespetatuko dira, egitateen izaera, faltaren ondorioak eta inguruabar aringarriak edo astungarriak kontuan hartuta.

Erregelamendu honetan ezarritako zehapen-araubideak ez die kalterik egingo jatorri-deitura babestuko erregistroetako kideek izan ditzaketen beste edozein eratako erantzukizunei.

Zigorrik ezin izango da ezarri, kapitulu honetan ezarritako prozeduraren arabera horretarako bideratutako espedientearen bidez ez bada.

Zehapen-ahala Osoko Bilkurari dagokio.

30. artikulua. – Arau-hauste administratiboak.

Zehatu daitezkeen arau-hauste administratiboak arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke.

31. artikulua. – Arau-hauste arinak.

Honako hauek hartuko dira arau-hauste arintzat:

1) Kontseiluaren finantzaketarako ezarritako kuoten ordainketa atzeratzea, hiru hilabetetik gorako atzerapena ez denean.

2) Jokabide oker oro, jatorri-deitura babestuko erregistroetan inskribatuta dauden gainerakoekin, kontseiluko kideekin eta haien gobernu-organoekin izandako harremanetan egindakoak, baldin eta jokabide oker horiek astunak edo oso astunak ez badira.

3) Entitatearen estatutu- eta erregelamendu-xedapenen aurkako jokabideak edo ez-betetzeak, baldin eta astunak edo oso astunak ez badira.

4) Kontseilu Araztailearen erabakiak ez betetzea, baldin eta ez badakarte zehapen-prozeduraren bat eragin dezakeen arau-hausterik.

32. artikulua. – Arau-hauste larriak.

Honako hauek hartzen dira arau-hauste astuntzat:

1) Kuotak ordaintzeko betebeharrak ez betetzea hiru hilabetean baino gehiagoan.

2) Erregistroko datuen aldaketen berri ez ematea kontseiluari, baldin eta aldaketa horiek ez badakarte zehapen-prozesuren bat eragin dezakeen arau-hausterik.

3) Urtebetean hiru arau-hauste arin egitea.

33. artikulua.— Osoko Bilkurako kideek egindako arau-hauste astunak.

Hauek dira Osoko Bilkurako kideek egindako arau-hauste astunak, zehapena ekar dezaketenak:

a) Osoko Bilkurako kide gisa dituen betebeharrak betetzeari dagokionez, funtzioak alde batera uztea edo ardurarik ez izatea.

b) Erregelamenduak edo indarreko legeriak ezartzen dizkien betebeharrak ez betetzea, baldin eta ez-betetze astuna bada.

c) Osoko Bilkuraren aginduak edo erabakiak ez betetzea edo atzerapen larria eta justifikaziorik gabea izatea.

d) Deiturarako interes orokorrekoak diren datuak edo irizpen-elementuak ezkutatzea, baldin eta Osoko Bilkuraren esku egon behar badute, duten izaeragatik.

e) Urteko aurrekontuetan aurreikusitako helburuetarako ez beste batzuetarako esleitutako zenbatekoak bidegabe eta justifikaziorik gabe aplikatzea.

f) Karguaren arabera, jatorri-deitura babestuaren edo haren ordezkaritza-organoen duintasunaren eta izen onaren aurkako jarduketak.

34. artikulua.— Arau-hauste oso larriak.

Honako hauek hartuko dira arau-hauste oso astuntzat:

1) Jatorri-deitura babestuaren izen onari kalte larria eragiten dioten jarduketa errudunak edo arduragabeak.

2) Kudeaketa-organoak ezarritako erabakiak ez betetzea, jatorri-deitura babestuari kalte larria eragiten badio, edo ez-betetze hori behin eta berriz egitea.

3) Abusuzko eta lehia desleialeko jarduerak, gainerako operadoreei edo kontsumitzaile edo erabiltzaileei kalte larria eragiten dietenak.

4) Begirunerik ez erakustea ez jatorri-deitura babestuko erregistroetan inskribatutako gainerako titularrei, ez eta Kontseilu Arautzailea osatzen duten pertsonei ere.

5) Arau-hausteengatik ezarritako zehapenak ez betetzea, zehapen irmoak direlako eta jurisdikzio-ordenako organo eskudunek bertan behera utzi ez dituztelako eska daitezkeenean.

6) Ohiko eta ezohiko kuotak edo beste ordainketa batzuk ez ordaintzea urtebetean baino gehiagoan.

7) Arau-hauste astun bat egiteagatik ezarritako zehapena ez betetzea.

8) Kontrola eragotzi edo zailtzea.

35. artikulua.— Zigorrak.

1.— Zehapen hauek ezarri ahal izango dira aurreko artikuluetan aurreikusitako arau-hausteengatik:

1) Ahozko ohartarazpena arau-hauste arinen kasuan.

2) Idatzizko ohartarazpena, 300 eurotik 3.000 eurora bitarteko isunarekin, arau-hauste astunen kasuan.

3) Idatzizko ohartarazpena, 3.001 eurotik 15.000 eurora bitarteko isunarekin, arau-hauste oso astunen kasuan.

4) Edonola ere, % 10eko errekgarga zordundutako kuoten ordainketa atzeratzeagatik, baldin eta hiru hilabeteen baino gehiagoan ordaindu ez badira operadoreen kasuan, eta urtebetean baino gehiagoan mahastizainen kasuan.

5) Deiturari eragindako kalte ekonomikoaren zenbatekoko isuna.

6) Kontseilu Arautzailearen Osoko Bilkurako kide izateari uztea; arau-haustearen astuntasunaren arabera, hilabete batetik sei urtera arte desgaitu ahal izango da kudeaketa-organoan erantzukizuneko edozein postu betetzeko.

2.– Artikulu honetako 5. eta 6. zehapenek sufragio aktibo eta pasiborako eskubidea baliogabetzea dakarte, haiek dirauten bitartean.

36. artikulua.– Zehapen-prozedura.

1.– Aurreko artikuluetan adierazitako zehapenak ezartzeko, zehapen-espediente bat izapidetuko da, eta, espediente horretan, espedientea egin zaien pertsonak eskubidea dute haien aurkako neurriak hartu aurretik entzunak izateko eta neurri horiek eragin dituzten egitateen berri izateko, eta, hala badagokio, zehapena ezartzen duen erabakia arrazoitu egin beharko da.

Ustekozko arau-hauste baten berri izatean, Kontseilu Arautzaileak, aurrekariak ikusita, jarduketak artxibatzea edo espedientea hastea erabakiko du. Kontseilu Arautzaileko idazkari-funtzioak betetzen dituen pertsona arduratuko da horretaz.

2.– Egin beharreko ikerketak egin ondoren, Kontseilu Arautzaileko idazkari-funtzioak betetzen dituen pertsonak espedientea artxibatzea proposatuko du, baldin eta zehapen arloko ez-zilegitasunaren zantzurik aurkitzen ez badu; bestela, kargu-orria egingo du. Kargu-orrian, hauek zehaztasunez, argi eta behar bezala arrazoituta adierazi beharko dira: legez kontratatzat jotzen diren egintzak; jokabide horren ondoriozko arau-hauste motaren kalifikazioa; eta, hala badagokio, arau-hausteari zer zehapen dagokion. Espedientepeko pertsonari hamabost eguneko epea emango zaio, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, idatziz erantzun ahal izateko, alegia, deskargu-orria eta defentsarako egokitatzat jotzen dituen frogen proposamena aurkezteko.

Zuzenbidean onargarriak diren frogabide guztiak onartuko dira espedientean, eta kontseiluko idazkari-funtzioak betetzen dituen pertsonari dagokio, proposatu ondoren, egokitatzat jotzen dituen edo berak erabaki ditzakeen frogabideak gauzatzea. Egindako entzunaldiak eta frogak espedientean jasoko dira idatziz.

3.–Zehapen-espedientearen instrukzioa amaitu ondoren, Kontseilu Arautzaileko idazkari-funtzioak betetzen dituen pertsonak Osoko Bilkurari helaraziko dio, dagokion ebazpen-proposamenarekin batera, eta, horren aurrean, espedientepeko pertsonari beste entzunaldi-izapide bat emango zaio, hamabost eguneko epe berean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita, egokitatzat edo bere eskubidearentzat komenigarritzat jotzen duena alegatu ahal izan dezan. Idazkari-funtzioak betetzen dituen pertsonak ezin izango du parte hartu Osoko Bilkuraren eztabaidetan eta erabakietan, hura baita ebazteko ardura duen organoa. Organo horrek, ebazpena eman aurretik, erabaki arrazoitu baten bidez, espedientea itzuli ahal izango dio, ebazpena hartzeko ezinbestekoak diren eginbideak egin ditzan. Interesdunak aukera izango du eginbide berrietan parte hartzeko, egoki

irizten badio; dena den, eginbide horien emaitza jakinarazi behar zaio. Emaiza jakin ostean, interesdunak zortzi eguneko epea izango du eginbide berriei begira bere eskubideari ondo datozkion alegazioak egiteko.

Ebazpena arrazoitua izango da, eta interesdunak planteatutako gai guztiak ebatziko ditu, bai eta prozeduratik eratorritakoak ere. Ebazpena eman eta hurrengo hamar egun balioduneko epean jakinarazi beharko zaio interesdunari, zer errekurso jar daitezkeen eta horiek zer epetan jar daitezkeen adierazita, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Batzorde Iraunkorrak arau-hauste arinengatiko zehapen-espeditatea ebatzi ahal izango du. Ostera, Osoko Bilkurari dagokio astunak eta oso astunak ebaztea, eta kideen gehiengo kualifikatuz hartu beharko da erabakia.

Batzorde Iraunkorraren ebazpenaren aurka, interesdunak errekursoa jarri ahal izango du Osoko Bilkuran.

37. artikulua.– Preskripzioa.

1.– Arau-haustea preskribatu egiten dira:

- a) Arinek: 6 hilabetera.
- b) Astunek: urtebetera.
- c) Oso astunek: 2 urtera.

2.– Zehapenak epe hauetara preskribatuko dira:

- a) Arinek: 6 hilabetera.
- b) Astunek: urtebetera.
- c) Oso astunek: 2 urtera.

3.– Arau-haustea preskribatzeko epeak arau-haustea egiten denetik aurrera hasiko dira zenbatzen. Preskripzioa eten egingo da Kontseilu Arautzaileak, berariaz eta argi, ustezko arau-haustea ikertzeko egiten duen edozein jarduketagatik; interesduna jakinaren gainean egongo da.

Zehapenen preskripzio-epeak zehapena ezartzen duen ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira zenbatzen. Kontseilu Arautzaileak zehapena berariaz eta argi beteazterako egintzaren bat egiten badu, zehapenaren preskripzio-epea eten egingo da.

4.– Ezereztan bada, zehapen-aurrekaria deuseztatuko da ondore guztietarako. Arau-hauste arinak, astunak eta oso astunak egiteagatik ezarritako zehapenak urtebetera, bi urtera eta lau urtera ezeztatuko dira, hurrenez hurren, kasuan kasuko zehapena betetzen denetik aurrera.

5.– Kanporatze kasuetan, Kontseilu Arautzaileak kanporatua birgaitzea erabaki ahal izango du zehapena irmoa denetik gutxienez hiru urte igaro ondoren; horretarako, dagokion espeditatea hasi beharko du, hala eskatuta.

38. artikulua.– Arau-haustea berriro egitea.

Berrerortzerik egon den zehazteko, ezarritako zehapen irmoak baino ez dira kontuan hartuko.

39. artikulua.– Garapen-xedapenak.

Kontseilu Arautzaileak erregelamendu hau garatzeko xedapenak ezarri ahal izango ditu.